

GURE DIRUA  
**TXORAKERIETAN  
GASTATZEN DUZUE**

**ZERBITZU PUBLIKO  
ETA LAN BALDINTZA  
DUINAK**

URRIAK 25  
ABENDUAK 19 **GREBARA !**



# UTZI GURE DIRUA TXORAKERIETAN GASTATZEARI

Ohituta gaude gobernuek erabaki-organoa Madrilen, Iruñean edo Gasteizen dutela ikustera. Baita udal eta aldundietan **gastu publikoa handitu ezin dutela** edota gero eta zaharkituagoa dagoen sektore publikoko plantillak berriztu ezin dituztela entzutera ere. Antza, ezin dute lan-hobekuntzarik egin, batez ere lanaldi eta soldatei dagokienez.

Estatuaren aurrekontu orokorren mende dago dena, dena... ez! (abesti ospetsu batek dioen bezala). Izan ere, badira **kontrol horretatik libre dauden proiektu faraonikoak**, denak ere klientelismoak, gainkos-tuek eta ustelkeriak markatuta.

Dirua egon, badago. Europako “**Next Generation**” funts pozoituak (erdia interes handiko mailegua), Iberdrola edo Petronor bezalako enpresa handietara bideratzen dora. Dirua badago lagunen artean banatzeko ere; **De Miguel, Tellería, Otxandiano, Bravo, Elorriaga, Margüello, Erezuma, Zulueta edo Errenteria** abizena dutenen artean, alegia. Dirua egon, badago diru publikoa I Formulako **Epsilon Euskadi** taldean edota **Hiriko** izeneko auto elektrikoan xahutzeko, baita **Balenziaga museoan** eta **Supersur** autobidean ere, eta nola ez, koroaren bitxian: **abiadura handiko trena** (martxan jarri nahi dutenerako zaharkituta geratuko dena, diru publikoko milaka milioi euro gastatu ondoren).

**Hezkuntza-itunetarako** ere 816 milioi euro daude, baina Euskal Eskola Publikoak benetako arazoak ditu kalitatezko zerbitzua eskaini ahal izateko. Bada dirurik ere **unibertsitate-zentro pribatuentzako; Basque Culinary Center** edo **Euneiz**. UPV-EHUko hainbat campusetako paretak, aldiz, erori egiten dira. Tolosako **Asuncion klinika** pribaturako dirua dago, baina ez Tolosaldeko ospitale publikorako. **Osakidetzako garbiketa eta garraiorako kontratatzen diren enpresa emakidadunen** diru-kutxak betetzeko dirua dago, baina ez dago halakorik azpikontrataturako langileen lan-baldintzak hobetzeko. Are gehiago, dirua dago Ambulancias La Pau bezalako enpresek 100.000 euro baino gehiago ordain ditzaten laneko segurtasun eta osasunaren arloko hainbat arau hautsi ostean, eta zerbitzua kudeatzen jarrai dezaten.

Hala ere, **zerbitzu publikoak eta enplegatu publikoen lan-baldintzak hobetzeko dirurik ez** dagoela esan digute, baina ESK eta STEILAS sindikatuok badakigu gezurra dela, eta **erabaki eta borondate politikoaren kontua baino ez dela**.

**Birjartze-tasak gainditu egin dira gobernuek eta alderdi politikoek hala erabaki dutenean.** EAJk hala negoziatu zuen Estatuko 2014ko eta 2017ko Aurrekontu Orokorretan Ertzaintzarentzat, baina ez gainerako zerbitzu publikoentzat, argi eta garbi erakutsi baitu zer lehentasun duten zerbitzu publikoen defentsan.

Horrek gauza bi erakusten ditu: Batetik, 2010etik aplikatzen ari diren austeritate-politiken gaineratik **hobekuntzak lor daitezkeela**, eta **diru publikoaren banaketa** gobernuek zuzentzen eta Estatuko edo EAEko administrazioetako aurrekontu orokorrak negoziatzen dituztenen **jarrera ideologikoen mende** dagoela. Erretiro-primak, soldata-hobekuntza duinak edo beharrezko enplegu publiko guztia sortu eta egonkortu nahi izanez gero, egin daiteke. Borondate politikoa baino ez da behar.

Bada garaia mugitzeko, zerbitzu publikoetako langile guztientzako **lan-hobekuntzak lortzeko** eta gobernuek **kalitatezko zerbitzu publikoetan inbertitzera** behartzeko, euskal herritar guztien eskubideak bermatzen baitituzte.

Horretarako, urriaren 25ean eta abenduaren 19an greba egingo dugu.

Ez dezatela gure dirua alferrik zahutu, eta inbertitu dezatela lan-baldintza duinak eta kalitatezko zerbitzu publikoak bermatzeko!

## **Greba egiteko unea da!**

# GREBARA ATERATZEN GARA...

## EROSTEKO AHALMENA BERRESKURATZEKO

EAEko sektore publikoaren erosteko ahalmenaren galera %20tik gorakoa izan da azken 14 urteetan, eta galera hori, itxura guztien arabera, areagotu egingo da jasaten dugun gehiegizko inflazioa dela eta.

Soldatak eguneratzeko proposamena %10ekoa izan zen 2024an, batez ere azken urtetan izandako KPlaren igoerak konpentsatzeko. Horrez gain, 2019az geroztik metatutako gainerako erosteko ahalmenaren galerari nola heldu negoziatzeko eskatu genion administrazioari, zorraren aitorpenetik abiatuta.

Sektore publikoko langileok lehen lerroan egon gara oso une zailetan, hala nola COVID-19aren pandemian, orain ahalegin hori ekintzekin saritzea dago-kigu, eta ez hitz hutsekin.

## ENPLEGU PUBLIKOA SENDOTZEA ETA BEHIN-BEHINEKOTASUNA MURRIZTEKO

Azken 15 urteetan, Estatuko Aurrekontu Orokorretan birjarpen-tasen bidez markatutako plantillak % 50 eta % 60 artean berritu dira. Horrek esan nahi du erretiroek eragindako lanpostu hutsen erdiak baino ez direla kontratazio egonkorrekin bete.

Mobilizazio askoren ondoren, Gobernuak 14/2021 Legegintzako Errege Dekretua onartu zuen. Dekretu hori ez da nahikoa, baina salbuespen-egoera onartzen du, eta salbuespenezko neurriak hartu behar dira enplegu publikoa eta kontratazioan iruzurra etengabe jasan duten pertsonak sendotzeko.

Horrek erakusten du borroka dela gobernuen planak aldatzeko eta enplegu publikoa defendatzeko errezeta bakarra.

## ERRETIROAK ETA PLANTILLAK BERRITZEA ERRAZTUKO DUTEN NEURRIAK LORTZEKO

Erretiroei dagokienez, azken urteetan izandako murrizketen aurkako grebak egin ditugu, erretiro-primen ezabapena irauli behar da, edo erretiroak eta plantillen berritzea sustatzeko beste formula batzuk bilatu behar dira.

## **ZERBITZU PUBLIKOEN AZPIKONTRATAZIOAREKIN AMAITZEKO**

Birjarpen-tasak ezartzea da sektore publikoko behin-behinekotasun-tasa altuen arrazoi nagusietako bat, gobernu desberdinen privatizazio-nahiarekin batera. Izan ere, Madrildik ezarritako mugak aitzaki hartuta, balaztarik gabeko azpikontratazioak eta privatizazioak handitzeko aprobetxatu dute.

Zerbitzu publikoen privatizazioaren ondorioak egunez egun ikusten ditugu gure kaleetan; sektore guztien greba eta mobilizazioekin, haien lan-baldintzen prekarietatearen aurrean, hitzarmen duinen defentsan (esku-hartze soziala, egoitza privatizatuak, etxez etxeko laguntza-zerbitzuak, osasun-garraioa, Osa-kidetzaren garbiketak, etab.) edo egindako lanagatik hilabete amaieran kobratzea bezain oinarrizkoa den zerbaitengatik (Correosen garbiketa). Gatazka horiek guztiak zerbitzu publikoen azpikontratazioaren eta privatizazioaren ondorio dira, eta gutxi batzuek poltsikoak betetzen dituzte langileak esplotatzearen kontura.

## **BERDINTASUNEAN ETA KONTZILIAZIOAN AURRERA EGITEKO**

Berdintasun-planen benetako negoziazioa eskatzen dugu, berdintasunerako bidean aurrera egingo duten neurri argi eta zehatzak bil ditzaten. Besteak beste, garrantzitsua da administrazio eta enpresa publiko guztietan nahi gabeko partzialtasunarekin amaitzeko neurriak hartzea. Partzialtasun horrek batez ere emakumeei eragiten die, eta hori da soldata- eta pentsio-arrakala azaltzen duen arrazoietakoa bat.

Gainera, ulertezina da guraso-baimena bezalako neurri ordaindu gabeak onartzea; baimeneko 8 asteak berehala aitortu behar dira ordaindutako eskubide gisa.

## **ADMINISTRAZIOA EUSKALDUNTZEA LORTZEKO**

Beharrezkoa da langile publikoak euskalduntzeko behar diren baliabide guztiak eskaintzea, langile guztiek beren lana egin eta herritarrei arreta euskaraz eman ahal izateko. Baliabiderik gabeko konpromisoak konpromiso hutsak dira.

**URRIAK 25 | ABENDUAK 19**  
**GREBARA !**

**25 OCTUBRE MANIFESTAZIOAK**

<b>DONOSTIA</b>	<b>11:30ean Bulevar</b>
<b>BILBO</b>	<b>11:30ean Gran Vía 85</b>
<b>GASTEIZ</b>	<b>11:30ean Legebiltzarra</b>

**esk**  
sindikatura

  
**steilas**